



GOBERNU BATZARRA

2022.03.15

- Alkatea:**
Olatz Peon Ormazabal
- Bertaratutako zinegotziak:**
Patxi Amantegi Zubiria
Xabier Balerdi Tolosa
Xarles Iturbe Pasaban
Begoña Tolosa Mendia
- Ez da bertaratu:**
Jose M^a Villanueva Telleria
- Idazkaria:**
Begoña Garmendia Vazquez
- Kontuhartzaile akzidentala:**
Paulino Alonso Eraso
- Tolosako Udaletxean, bi mila eta hogeita biko martxoaren hamabostean, 11:15ean, Tokiko Gobernu Batzarra bildu da ohiko bilera egiteko. Mahaiburu alkatea izan da eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai-zerrenda aztertzeko:
1. Akta hau onartzea: 2022ko otsailaren 22koa.
 2. Onartzea Tolosako zezen plaza egokitzeko 4. faseko obraren exekuzio-proiektua.
 3. Onartzea Tolosako Udalaren, Gipuzkoako Garraioaren Lurralde-Agintaritzaren eta Autobuses Cuadra SAU operadorearen arteko hitzarmena, Tolosako bidaiarien hiri-garraio publikoko zerbitzua tarifen integrazioko sisteman sartzeko.
 4. Tolosako Udalak onartzea eta kudeatzea "Oporrak Bakean Tolosaldeko Familietan 2022" programa.

1. AKTA HAU ONARTZEA: 2022KO OTSAILAREN 22KOA.

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, 2022ko otsailaren 22an egindako ohiko batzarraren akta aztertu dute. Batzarkideek aho batez onartu dute.

2. ONARTZEA TOLOSAKO ZEZEN PLAZA EGOKITZEKO 4. FASEKO OBRAREN EXEKUZIO-PROIEKTUA.

I.- IDENTIFIKAZIO DATUAK

Kontratuaren xedea	Tolosako zezen plaza egokitzeko 4. faseko obraren exekuzio-proiektuaren obrak.
--------------------	--



Unitate sustatzailea	Hirigintza Azpisaila
Espedientea	2020OPRO0016

II.- AURREKARIAK

Lehena.- 2022ko otsailaren 23an, Aitor Zubia Azkue eta Xabier Zabala Urriategi arkitektoek (Zetabi) Tolosako zezen plaza egokitzeko 4. faseko obraren exekuzio-proiektua (legearen arabera bisatuta, G2021 A1460-21/02/2022) aurkeztu zuten.

Bigarrena.- Proiektua Tolosako zezen plaza zaharberritzeko 4. faseari dagokio eta lan esparrua goiko harmailaren eta sarrera nagusiko eskaileraren eraberritzera mugatu da:

- Zezen plazako lehen solairuko forjatuko egituraren erreforma integrala, palko eta harmailetakoko gradak mantenduta.
- Eraikineko sarrera nagusiaren albo batean kokatzen den eskaileraren erreforma: 1 m-ko zabaleradun atea jarriko dira eta irekiera ebakuazioaren noranzkoan izango da. Modu horretan, irteera berrizat har daiteke. Horrek goiko solairuko harmailetan eta palkoetan 200 erabiltzaile gehiago izatea ahalbidetuko du.

Hirugarrena.- Beharrezkoak izango da autobabes-plan independente bat idaztea edo lehendik dagoena eguneratzea, eta proposamen hori jasotzeko kalkulu egokiak ere bai. Proiektuak luminaria eta instalazio elektrikoak desmuntatzeko lanak aurreikusten dituen arren, guneko argiztapen berria ez da aurreikusten, eta horretarako aparteko proiektua bat landu da. Proposamena: Tecnalía Research and Innovation-en analisiak kontuan hartuta (proiektuak egitura osatzen duen zuraren inguruko azterketa jasotzen du), gapirioen egitura osoa, habeak eta zutabeak (kapitela ukitu gabe, estalkia ukitu beharrik ez izateko) antzeko ezaugarriak dituzten elondoeko pieza berriekin ordeztzea.

Laugarrena.- Ondare Departamentuak eskatutakoaren arabera, proposamen honek egitura egonkortzea ahalbidetzen du harmailak desmuntatu gabe, hau da, harmailak kontserbatzeko aukera ematen du. Hautatutako egur espezieak aukera ematen du egitura erabilera publikorako karga eskakizun berrietara egokitzeko, eta izango duen erabilera motarako (erdi-aterpea) egokiagoa da, egituraren iraunkortasuna luzatuko baita. Zutabeen eta haben arteko loturaren eraikuntza diseinu berria proposatzen da, zuraren iraunkortasuna are handiagoa izan dadin eta etorkizuneko mantentze-lanak errazteko. Diseinu horrek ura pilatu dezaketen puntuak ekiditen ditu, zuraren iraunkortasun naturala luzatuz. Esku hartutako eremuak esmaltez eta gaur egun dagoenaren antzeko kolorez margotuko dira. Lehen solairuko harmailen eta palkoen kasuan, gardentasun ezberdinetako lasur bat erabiltzea proposatzen da, jatorrizko pintura eta zenbakia gordetzeko. Pintatu aurretik, egurraren garbiketa leuna egingo da.

Bosgarrena.- Eusko Jaurlaritzaren ikuskizunen gaineko araudiak ezarritako baldintzei erantzute aldera, harmailetakoko 45 cm-ko eskailerak bikoiztea proposatzen da. Horretaz gain, zezen plazara ez jausteko babesa altxatuko da, behean geratuko den hutsuneak ura



ateratzeko hobekuntza dakarrela. Orokorrean, gainontzeko babes guztiak 90 cm-ra igo dira, lehendik dagoen babesaren osagarria gehituz. Ondare babesaren duen eraikina denez, ezin izango dira bete ikuskizunei buruzko araudian ezarritako hainbat baldintza. Hala ere, ahal den neurrian, beteko dira edo alternatibaren bat bilatuko da.

Seigarrena.- EJko Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzak ez du espediente honetarako nahitaezko txostenik egin behar; hala ere, proiektua lantzeko orduan, haien irizpideak kontuan izan dira eta exekuzio proiektua jakinarazi zaie.

Ondare Departamentuaren aldeko ebazpena jaso da eta, haren arabera, proiektuak era egokian jasotzen ditu ondarearen inguruko irizpideak, eta egindako proposamenak egokiak dira.

*** Oharra:** Proiektuaren esku-hartzea aipatutako guneetara mugatzen da eta ez ditu hartzen zezen plazako gainontzeko guneak, teilatua, beheko solairua, kanpoko gehigarriak, komunak eta abar. Proiektuak ez ditu gaur egungo eraikinaren ebakuazio ibilbideak eta edukiera mugak aldatuko. Eskaileraren erabilera batetik, eta horrek ekar ditzakeen edukiera eta ebakuazio bideen aldaketak bestetik, indarrean jarri ahal izateko, zenbait berritze proiektu (egitura, elektrizitatea,...) bateratuko dituen jarduera proiektu berri bat egin beharko da horiek legezatu ahal izateko. Horiek garatu bitartean, gaizki ulertuak ekiditeko, iparraldeko sarrerako eskailera blokeatuta edukiko da.

Zazpigarrena.- Udal arkitektoak 2022ko martxoaren 3an igorritako AB22_016 txostenean datu hauek jasotzen ditu:

2.2. PROIEKTUAREN HELBURUA:

Aurkeztutako memoriaren arabera, exekuzio proiektuaren xedea hau da:

Tolosako zezen plazaren goiko harmaila eta sarrera nagusiko eskailerak zaharbertzeko obra gauzatu ahal izateko dokumentazioa zehaztea: baita GFAko Kultura Saileko Ondare azpisailaren eta EJko Segurtasun Saileko Ikuskizunetako azpisailaren onetsia jasotzea ere. Proiektuaren esku-hartzea aipatutako guneetara mugatzen da eta ez du esku hartzen zezen plazako gainontzeko guneetan: teilatua, beheko solairua, kanpoko gehigarriak, komunak eta abar.

2.3. ERAIKINA EGOKITZEKO PROPOSAMENA:

Tolosako zezen plaza zaharbertzeko 4. faseari dagokio, eta lan esparrua goiko harmailaren eta sarrera nagusiko eskaileraren eraberritzera mugatu da:

- Zezen plazako lehen solairuko forjatuko egituraren erreforma integrala, palko eta harmailetak mailak mantenduta.

- Eraikineko sarrera nagusiaren albo batean kokatzen den eskaileraren erreforma: 1 m-ko zabaleradun ateak jarriko dira eta irekiera ebakuazioaren noranzkoan izango da. Modu horretan, irteera berrizat har daiteke. Horrek goiko solairuko harmailetan eta palkoetan 200 erabiltzaile gehiago izatea ahalbidetuko du..



Beharrezkoa izango da autobabes-plan independente bat idaztea edo lehendik dagoena eguneratzea, eta proposamen hori jasotzeko kalkulu egokiak.

Proiektuak luminaria eta instalazio elektrikoak desmuntatzeko lanak aurreikusten dituen arren, guneko argiztapen berria ez da aurreikusten, eta horretarako aparteko proiektua bat landu da. Proposamena: Tecnalía Research and Innovation-en analisiak kontuan hartuta (proiektuak egitura osatzen duen zuraren inguruko azterketa jasotzen du), gapirioen egitura osoa, habeak eta zutabeak (kapitela ukitu gabe, estalkia ukitu beharrik ez izateko) antzeko ezaugarriak dituzten elondoeko pieza berriekin ordeztzea.

Ondare Departamentuak eskatutakoaren arabera, proposamen honek egitura egonkortzea ahalbidetzen du harmailak desmuntatu gabe, hau da, harmailak kontserbatzeko aukera ematen du. Hautatutako egur espezieak aukera ematen du egitura erabilera publikorako karga eskakizun berrietara egokitzeko, eta izango duen erabilera motarako (erdi-aterpea) egokiagoa da, egituraren iraunkortasuna luzatuko baita. Zutabeen eta haben arteko loturaren eraikuntza diseinu berria proposatzen da, zuraren iraunkortasuna are handiagoa izan dadin eta etorkizuneko mantentze-lanak errazteko. Diseinu horrek ura pilatu dezaketen puntuak ekiditen ditu, zuraren iraunkortasun naturala luzatuz.

Esku hartutako eremuak esmaltez eta gaur egun dagoenaren antzeko kolorez margotuko dira. Lehen solairuko harmailen eta palkoen kasuan, gardentasun ezberdinetako lasur bat erabiltzea proposatzen da, jatorrizko pintura eta zenbakia gordetzeko. Pintatu aurretik, egurraren garbiketa leuna egingo da.

Eusko Jaurlaritzaren ikuskizunen gaineko araudiak ezarritako baldintzei erantzute aldera, harmailetak 45 cm-ko eskailerak bikoiztea proposatzen da. Horretaz gain, zezen plazara ez jausteko babesak altxatuko da, behean geratuko den hutsuneak ura ateratzeko hobekuntza dakarrela. Orokorrean, gainontzeko babes guztiak 90 cm-ra igo dira, lehendik dagoen babesaren osagarria gehituz. Ondare babesaren eraikina denez, ezin izango dira bete ikuskizunei buruzko araudian ezarritako hainbat baldintza. Hala ere, ahal den neurrian, beteko dira edo alternatibaren bat bilatuko da.

EJko Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzak ez du espediente honetarako nahitaezko txostenik egin behar; hala ere, proiektua lantzeko orduan, haien irizpideak kontuan izan dira eta exekuzio proiektua jakinarazi zaie.

Ondare Departamentuaren aldeko ebazpena jaso da eta, haren arabera, proiektuak era egokian jasotzen ditu ondarearen inguruko irizpideak, eta egindako proposamenak egokiak dira.

** **Oharra:** Proiektuaren esku-hartzea aipatutako guneetara mugatzen da eta ez ditu hartzen zezen plazako gainontzeko guneak, teilatua, beheko solairua, kanpoko gehigarriak, komunak eta abar. Proiektuak ez ditu gaur egungo eraikinaren ebakuazio ibilbideak eta edukiera mugak aldatuko. Eskaileraren erabilera batetik, eta horrek ekar ditzakeen edukiera eta ebakuazio bideen aldaketak bestetik, indarrean jarri ahal izateko, zenbait berritze proiektu (egitura, elektrizitatea,...) bateratuko dituen jarduera proiektu berri bat egin beharko da horiek legezatu ahal izateko. Horiek garatu bitartean, gaizki ulertuak ekiditeko, iparraldeko sarrerako eskailera blokeatuta edukiko da.*



2.4. PROIEKTUAREN EDUKIA:

Proiektuaren edukia hauxe da: memoria, planoak, aurrekontua, eranskinak eta jarduera memoria.

Memorian, EKT/CTEri dagozkion honako atal hauek arrazoitu dira: OD-SS/DB-SI, OD-ESI/DB-SUA. Horretaz gain, udal planeamenduari dagokion justifikazioa eta ikuskizunetako araudia fitxak ere bai. Irisgarritasunari dagozkion fitxak ere aurkeztu dira, baina Ondare babesa dela-eta ezinezkoa da irisgarritasun unibertsala erabat bermatzea. Irisgarritasunari dagokion araudia ahal den neurrian beteko da. Bestalde, obra partziala da eta ez da igogailua eranstea planteatu.

2.5. INDARREAN DAGOEN ARAUDIA BETETZEA

- HIRIGINTZA ARAUDIA

- Tolosako Plan Orokorra (2009)

- Urbanizazio, Eraikuntza, eta Ingurumena, Paisaia eta Natura Babesteko Udal Ordenantzak. Egin nahi den obrak Tolosako hirigintza araudia betetzen du.

- IKUSKIZUNEI BURUZKO ARAUDIA

- 10/2015 Legea, abenduaren 23koa, ikuskizun publikoena eta jolas-jarduerak.

- 17/2019 Dekretua, otsailaren 5koa, Jendurreko Ikuskizunen eta Jolas Jardueren Legea garatzeko Erregelamendua onartzen duena

2.6. AURREKONTUA

Aurrekontua, **guztira**
740.171,87 €-koa da, %
21eko BEZa barne;
horietatik, 611.712,29 €
printzipalari dagozkio eta
128.459,58 €, % 21eko
BEZari. Kontratuaren **balio**
zenbatetsia 611.712,29 €-
koa da. Proiektuaren
EXEKUZIO

MATERIALAREN

AURREKONTUA 514.043,94 eurokoa da.

Kopuru horretan ez da obra zuzendaritzaren kostua sartu.

2.7 EXEKUZIO EPEA

Proiektuan zehazten denaren arabera, obrak egiteko epea 8 HILABETEkoa da.

TOLOSAKO ZEZEN PLAZA. 4. FASEA BERRIKUSPENA

KAPITULOA	LABURPENA	EURO	%
1	AURRETIAZKO LANAK ETA BITARTEKO OSAGARRIAK	51.253,35	9,97
2	EGURREZKO EGITURA	308.230,86	59,96
3	PALKOETAKO IRTEERAKO ESKAILERA	17.141,13	3,33
4	ERREMENTERIA	49.545,02	9,64
5	INSTALAZIOAK	12.156,60	2,36
6	AKABERAK ETA BABESAK	66.911,26	13,02
7	HONDAKIN-KUDEAKETA	4.265,21	0,83
8	SEGURTASUN ETA OSASUNA	3.810,15	0,74
9	KALITATE KONTROLA	730,36	0,14
GAUZATZE MATERIALAREN AURREKONTUA GUZTIRA		514.043,94	
	% 13,00 Gastu orokorrak	66.825,71	
	% 6,00 Etekin-industrialia	30.842,64	
	G.O. y E.I. BATURA	97.668,35	
	KONTRATA AURREKONTUA GUZTIRA	611.712,29	
	% 21,00 B.E.Z.	128.459,58	
	AURREKONTU OROKORRA GUZTIRA	740.171,87	



2.8. BAIMEN SEKTORIALAK

Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura, Lankidetzeta, Gazteria eta Kirol Departamentuaren aldeko ebazpena. Ondare babesari dagokionez, 2022/01/07an, GFAko Kultura, Lankidetzeta, Gazteria eta Kirol Departamentuaren aldeko ebazpena jaso zuen Udalak (0910 FE/RF 010 2022; 313/2021 espediente), baldintza hauekin:

- Lanen hasiera eta amaiera datak Foru Aldundiari jakinaraziko zaizkio.
- Proiektuarekiko edozein aldaketa Foru Aldundiari jakinaraziko zaio.
- Lanak amaitutakoan, obra amaierako dokumentazioa aurkeztu beharko da Foru Aldundian”.

EJko Segurtasun Sailaren Ikuskizunetako azpisailaren aldeko ebazpena segurtasunari dagokionez. 2022/02/23an, Eusko Jaurlaritzako Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzaren txostena jaso zuen Udalak, honako hau zehaztuta: “ez du espediente honetarako nahitaezko txostenik egin behar”, eta espediente itxi egingo dute.

Lehen esan bezala, exekuzio-proiektua lantzeko orduan beren irizpideak kontuan izan dira eta exekuzio-proiektua jakinarazi zaie.

3. EBAZPEN PROPOSAMENA

Hori guztia ikusita, hauxe proposatzen da:

LEHENA: Onartzea Aitor Zubia Azkue eta Xabier Zabala Urriategi arkitektoek (Zetabi) sinatutako exekuzio-proiektua, Tolosako zezen plaza egokitzeko 4. faseari dagokiona.

BIGARRENA: Obraren ondorioz, ebakuazioko ate bat gehituko da eta erabiltzaile kopurua handituko da. Beraz, obra amaitzerako, **beharrezkoa izango da autobabes-plan independente bat idaztea edo lehendik dagoena eguneratzea, bertan egoera berrirako okupazio eta ebakuazio kalkulu egokiak jasotzeko.**

HIRUGARRENA: GFAko Kultura, Lankidetzeta, Gazteria eta Kirol Departamentuaren aldeko ebazpena jaso zuen Udalak (0910 FE/RF 010 2022; 313/2021 espediente), baldintza hauekin:

- Lanen hasiera eta amaiera datak Foru Aldundiari jakinaraziko zaizkio.
- Proiektuarekiko edozein aldaketa Foru Aldundiari jakinaraziko zaio.
- Lanak amaitutakoan, obra amaierako dokumentazioa aurkeztu beharko da Foru Aldundian”.

LAUGARRENA: Segurtasunari dagokionez, 2022/02/23an, Eusko Jaurlaritzako Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzaren txostena jaso zuen Udalak, honako hau zehaztuta: “ez du espediente honetarako nahitaezko txostenik egin behar”, eta espediente itxi egingo dute.

III.- ZUZENBIDEKO OINARRIAK

9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuak, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB



zuzentzarauen transposizioa egiten duenak Espainiako ordenamendu juridikora, 231. artikuluan hau zehazten du **obra proiektuei** buruz:

231. artikulua. Obra-proiektua.1. Lege honetan ezarritakoaren arabera, obra-kontratu bat adjudikatzeko, aldez aurretik proiektua egin, gainbegiratu eta onetsi egin behar da, baita haren zuinketa egin ere; proiektuak zehatz-mehatz adierazi behar du kontratuaren objektua. Kontratazio-organoak onetsiko du proiektua, salbu eta eskumen hori arau juridiko baten bidez beste organo bati eman bazaio berariaz.2. Proiektua eta obra biak batera adjudikatzekoak direnean, obra egin ahal izateko, kontratazio-organoak proiektua gainbegiratu eta onetsi egin beharko du, eta proiektuaren zuinketa egin

Halaber, 232. artikulua obrei buruzko sailkapena egiten du, eta 233. artikuluan, **proiektuen edukiari** eta proiektuak egitetik sortzen diren erantzukizunei buruz hau xedatzen du:

1. Obra-proiektuetan hauek sartu behar dira gutxienez:

- a) Txostena, obraren objektua deskribatuta. Honako hauek jasoko dira txosten horretan: aurrekariak eta obrak hasi aurreko egoera, bete beharreko beharrezkoak eta aukeratutako konponbidearen justifikazioa; betiere, aintzakotzat hartu beharreko faktore guztiak zehaztuta.*
- b) Delako obra erabat zehazteko beharrezkoak diren plano orokorrak eta xehetasun-planoak, eta, orobat, lursailen okupazioa eta zortasun-eskubideen eta gainerako eskubide errealeen itzulketa zedarrizteko planoak, eta, hala badagokio, obrak eginez ukituko diren zerbitzuak zedarriztekoak.*
- c) Preskripzio tekniko partikularren agiria. Bertan, obrak deskribatuko dira eta obrak nola egingo diren arautuko da, honako hauek adieraziz: lan horiek zer erataro egingo diren, kontratistak zer betebeharrak tekniko izango dituen, gauzatutako unitateak nola neurtuko diren eta erabilitako materialen kalitatea eta obrak egiteko prozesua nola kontrolatuko diren.*
- d) Aurrekontua, aurrekontu partzialez osatuta edo ez; unitateko prezioak eta, hala dagokionean, prezio xehatuak ere adierazi beharko ditu, baita neurketen egoera-orria eta aurrekontua balioesteko beharrezkoak diren zehaztasunak ere. Aurrekontua funtsezko obren arabera antolatuko da, erregelamenduz ezartzen den eran.*
- e) Argibide moduan, lanak garatzeko egitaraua edo obra egiteko plana; hala badagokio, iraupena eta kostua zehaztuko dira.*
- f) Obraren zuinketak oinarri izango dituen era guztietako erreferentziak.*
- g) Segurtasun- eta osasun-azterlana edo, bestela, segurtasunari eta osasunari buruzko oinarritzeko azterlana, obretako segurtasun- eta osasun-arauetan ezarritakoaren arabera.*
- h) Legezko edo erregelamenduzko arauetan ezarritako agiri guztiak.*

2. Hala ere, lizitazioaren oinarritzeko aurrekontu moduan BEZik gabe 500.000 eurotik behera dituzten lehen ezarpeneko, eraberritzeko zein konponketa handiak egiteko obren proiektuetarako, eta aurreko artikuluan zerrendatutako gainerako proiektuetarako, erraztu, bateratu zein ezabatu ere egin daiteke goian aipatutako agirietakoren bat edo beste, lege hau garatzeko arauetan zehaztutako moduan, baldin eta horrela egindako agiri hauek nahikoa badira obrak zehaztu, balioetsi eta egiteko. Dena den, arau



espezifikoetan horrela aurreikusten denean baino ezingo dira aurkeztu gabe utzi aurreko apartatuko g) letran aipatzen diren agiriak.

3. Obrak egiteko erabiliko diren lurren azterlan geotekniko bat ere sartu behar da proiektuan, obraren izaerarekin bateraezina ez bada behintzat; baita kontratuaren objektua hobeto zehazteko beharrezko diren alde aurreko txostenak eta azterlanak ere.

4. Proiektua osorik Administrazioak berak kontratatu duenean, proiektuaren egileak edo egileek lege honetan ezartzen den moduan hartuko dute bere gain erantzukizuna. Prestazioa Administrazioaren lankidetzaz eta hark gainbegiraturik ematen bada, lankidetzaren arlokoak soilik izango dira erantzukizunak. Proiektu batek azterlan geotekniko bat biltzen duenean eta hartan ez direnean aurreikusi egikaritzen ari den kontratuaren hasierako prezioaren ehuneko 10etik gorako igoera dakarten inguruabar jakin batzuk, haren egileari edo egileei 315. artikulua ezartzen duen kalte-ordaina eskatu ahalko zaie, baina, haren 1. apartatuan aipatzen den ehuneko 20ko portzentajearen orde, horretarako, ehuneko 10eko portzentajea ezarri beharko da.

5. Proiektuak nahitaez bete beharrekoak diren jarraibide teknikoak arabera egingo dira.

6. Obrak Administrazio Publikoak ustiatzen dituenean, obra ustiatu behar duen Administrazioaren inbertsioen egungo balio garbia, kostuak eta diru-sarrerak jaso beharko da proiektuan.

Kontratu honek, beraz, **administrazio-izaera** du 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituenak, 25.1 artikulua a) atalean xedaturikoarekin bat; obra kontratua da hain zuzen ere, aipatutako Legearen 13. artikuluan xedaturikoaren arabera. Izan ere, SPKLren 13.1 artikuluan araututakoaren arabera, obra kontratuaren xedea, I. Eranskinean aurreikusitako lanen bat exekutatzea izango dela ikusirik, egin nahi diren lanak aipaturiko Eranskinaren 45.21 atalean sailkatutakoak agertzen dira: «*Eraikinak eta ingeniariak zibileko obra bereziak eraikitzea (zubiak, tunelak, eta abar)*».

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen arabera, tokiko obra publikotzat jo daitezke toki erakundeek egindako lanak, baldin eta beren eskumeneko zerbitzuak eta jarduerak emateko alorretan gauzatzen badira, kontratu legeria orokorrak ezarritako ezaugarriak betetzen badituzte eta beren diru-funtsekin edota beste batzuetako erakunde zein norbanakoen diru-laguntzarekin finantzatzen badira. Lege horren 25.2 artikulua d) atalean xedaturikoaren arabera, Udalak eskumena du bere titularitateko ekipamenduen gainean lanak egiteko. Halaber, Euskal Autonomia Erkidegoko udalei aplikagarri zaien Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 17. artikulua, udalerrien eskumen propioak arautzen dituenak, udalerrien eskumen propioetat hartzen du, beste batzuen artean, hirigintzaren antolamendua, kudeaketa, exekuzioa eta diziplina, osasun publikoa sustatzea, kudeatzea, defendatzea eta babestea, gizarte-zerbitzuak antolatzea, planifikatzea eta kudeatzea, kirola eta kirol-jarduerak antolatzea eta sustatzea, eta erabilera publikoko kirol-ekipamenduak kudeatzea, kultura eta kultura-jarduerak antolatzea eta sustatzea, eta erabilera publikoko kultura-ekipamenduak kudeatzea, udal-ondarea kudeatzea eta ondare horren erabilera, zertarako, kontserbazioa eta mantentze-lana arautzea, betiere foru-



araudiarekin bat, udalerrarenak diren herri barruko bide publikoak eta baserri-bideak antolatzea eta kudeatzea (kontserbatzea eta mantentzea barne), udalerriko bideetan, pertsona, ibilgailu –motordun zein bestelako– eta animalien mugikortasuna eta irisgarritasuna nahiz pertsona eta salgaien garraioa antolatzea, kudeatzea, sustatzea eta diziplina-modua zehaztea, establezimendu publikoak eta jolas-jarduerak antolatzea eta kudeatzea, ea.

Beraz, lanen xedea eta izaera aztertu ondoren, eta SPKLren 231. eta 232. artikuluetan xedatutakoa kontuan izanik, obra hauek **zaharberritze-obrak** direla esan daiteke. Horretarako, egoki diren kudeaketak eta beharrezkoa den hasierako dokumentazioa eginda, izenpetzaileak organo eskudunaren onespenerako jartzen du kontratuari dagokion espedientea, jarraian jasotako txostenaren eta proposamenaren arabera.

Proiektuan definituriko **obraren aurrekontu orokorra 611.712,29 eurokoa da, BEZik gabe**; beraz, SPKLren 235. artikulua xedatutako **ikuskapena egin behar da**, kontratuaren zenbatekoak 500.000,00 euro gainditzen dituelako. Halaber, adierazi behar da obra publikoaren proiektu horri buruzko txostena eman duela udal arkitekto teknikoak.

BALIO ZENBATETSIA	BEZa (% 21)	LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURR.
611.712,29	128.459,58	740.171,87

Proiektua onartu ondoren, SPKLren 236. artikulua xedatzen du, obraren kontratazio-espedientea izapidetzen hasi aurretik, **proiektuaren zuinketa** egin beharko dela, obraren errealitate geometrikoa egiaztatzeko eta obra hori arazorik gabe egiteko beharrezko lurrak erabilgarri daudela ziurtatzeko. Kasu honetan esan behar da, txosten hau igortzen den momentuan, **ondasunen erabilgarritasuna ziurtatuta dagoela eta dagokion zuinketa-akta egin dutela.**

Zuinketa egitea ezinbestean bete beharreko baldintza izango da adjudikazio-jardunbide guztietan. Era berean, egindako proiektuan agertzen diren eta kontratua egiteko oinarrikoak diren kasu guztiak egiaztatu beharko dira.

Artikulu horren 4. atalak xedatzen du, proiektuaren zuinketa egin ostean, proiektua kontratazio espedienteari erantsi behar zaiola.

IV.- KONTRATAZIO-ORGANOA

Kontratazio-organoa zehazteko, kontratazio arloan Toki Erakundeei aplikatu beharreko arau espezifikoak jasotzen dituen xedapenak hartuko dira kontutan, SPKLren Bigarren Xedapen Gehigarriaren 1. atalean xedaturikoak hain zuzen ere.

1. Toki-entitateetako alkateen eta lehendakarien eskumena izango dira, kontratazio-organoa diren neurrian, kontratu hauek guztiak: obra-kontratuak, hornidura-kontratuak, zerbitzu-kontratuak, obra-emakidako kontratuak, zerbitzu-emakidako kontratuak eta administrazio-kontratu bereziak, baldin eta haien balio zenbatetsia ez bada aurrekontuko baliabide arrunten ehuneko 10 baino handiagoa, eta ezta, inola ere, sei milioi euro baino gehiago ere; berdin gertatuko da urte anitzeko kontratuen kasuan



ere, haien iraupena ez bada lau urtekoa baino luzeagoa, balizko luzapenak barne, eta, betiere, urteroko guztien zenbateko metatua ez bada lehenengo ekitaldiko baliabide arrunten 100eko 10 baino handiagoa, ez eta sei milioi euro baino gehiago ere.

2. Osoko Bilkuraren eskumena izango da, kontratazio-organo den neurrian, aurreko apartatuan aipatutako kontratuak egitea kontratuaren balioagatik edo iraupenagatik toki-entitateko alkatearen edo lehendakariaren eskumena ez denean aurreko apartatuak xedatutakoarekin bat. Halaber, Osoko Bilkurari dagokio lege honen 121. artikuluan aipatzen diren administrazio-klausula orokorren agiriak onestea.

Kasu honetan, kontratuaren balio zenbatetsia 611.712,29 eurokoa denez, aipatutako aurrekontuko baliabide arrunten ehuneko 10 (2.656.409 euro) baino gutxiago da; hortaz, alkate-lehendakaria da kontratazio hau onartzeko organo eskuduna. Horiek horrela, Tolosako Udalaren kasuan, 2022ko otsailaren 11ko 2022/253 Alkatetzaren Dekretuaren bidez, alkate-lehendakariak hainbat eskumen eskuordetu zituen Tokiko Gobernu Batzarrean, horien artean 600.000 eurotik gorako balio zenbatetsia duten kontratuen lizitazioak onartzea. Beraz, **Tokiko Gobernu Batzarra da kontratazio hau onartzeko organo eskuduna.**

Aipatu behar da kontratazio-organoari dagozkiola, besteak beste, kontratua esleitzea, kontratua interpretatzea, kontratuan sor daitezkeen zalantzak ebaztea, herri-onurako arrazoiengatik kontratua aldatzea, kontratuari amaiera ematea eta amaiera horren ondorioak zehaztea, hori guztia SPKLren 190. eta 191. artikuluen arabera eta haren Araudi Orokorrean ezarritako muga, baldintza eta ondorioei eutsiz.

Aurreko guztia aintzat harturik, Hirigintzako eta Idazkaritzako aldeko txostenak ikusirik, eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

LEHENA.- Onartzea Tolosako zezen plaza egokitzeko 4. faseko obraren exekuzio-proiektua, Aitor Zubia Azkue eta Xabier Zabala Urriategi arkitektoek (Zetabi) sinatua.

BIGARRENA.- Onartzea proiektu horrek aurreikusten dituen lanen aurrekontua, 740.171,87 eurokoa, % 21eko BEZa barne; horietatik, 611.712,29 euro printzipalari dagozkio eta 128.459,58 euro, BEZari.

BALIO ZENBATETSIA	BEZa (% 21)	LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURR.
611.712,29	128.459,58	740.171,87

HIRUGARRENA.- Ohartaraztea egiaztatu beharko direla, obraren kontratazio-espeditentia izapidetzen hasi aurretik, egindako proiektuan agertzen diren eta kontratua egiteko oinarritzekoak diren kasu guztiak.

LAUGARRENA.- Erabaki horiek Ogasun eta Finantza Administrazio Sailari, Hirigintza Azpisailari eta Idazkaritza Orokor, Kontratazio eta Ondarearen Azpisailari jakinaraztea.



3. ONARTZEA TOLOSAKO UDALAREN, GIPUZKOAKO GARRAIOAREN LURRALDE-AGINTARITZAREN ETA AUTOBUSES CUADRA SAU OPERADOREAREN ARTEKO HITZARMENA, TOLOSAKO BIDAIARIEN HIRI-GARRAIO PUBLIKOKO ZERBITZUA TARIFEN INTEGRAZIOKO SISTEMAN SARTZEKO.

1- AURREKARIAK

- 2019/12/10ean Gobernu Batzarrak erabaki hau hartu zuen:

“ Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzari aldez aurreko eskaera egitea, Tolosako Udala Patzuergo horretan sartzeko, haren estatutuen 37. artikuluan ezarritakoaren arabera; ondorioz, erakunde horrek esan dezala eskaera egokia den ala ez eta, egokia bada, eman diezaiola Tolosako Udalari bete beharreko baldintzen berri. “

- 2020/06/3an Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritza (GGLA) Partzuergoko Batzar Nagusiak integrazio prozesuari hasiera ematea erabaki zuen eta integrazioarako baldintzak finkatu zituen.

- 2021eko azaroaren 25eko Ohiko Osoko Bilkurak erabaki zuen ontzat ematea erakundera sartzeko jarritako prozedura-baldintzak, Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzak ezarritakoak, eta hasierako onarpena eman zitzaizen Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren Estatutuei eta bidaiaren errepide bidezko garraio zerbitzu publiko erregularrak harmonizatzeko erregelamenduari.

- 2022ko urtarrilaren 11n, erabakiaren iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen eta aipatutako bi arautegiak 30 eguneko epean jendaurrean jarri ziren. Epe horretan alegaziorik egon ez denez, behin betiko onartutzat jo daitezke aurreko paragrafoan aipatutako bi arautegiak.

2022ko martxoaren azken astean Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzak (GGLA) bilkura egingo du eta bertan Tolosaren integrazio prozesuari amaiera ematea aurreikusten da. Testuinguru honetan, GGLAk helarazi digu erakunde horren eta zerbitzuaren adjudikaziodunaren artean sinatu behar duten hitzarmena, gure oniritzia eskatuz eta aipatutako hitzarmen hau sinatzeko eskatuz.

2- AZTERKETA TEKNIKOA

➤ 2021eko azaroaren 25eko Ohiko Osoko Bilkurak, Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzara (GGLA) sartzeko, besteak beste, erakunde honek finkatutako prozedura-baldintzak onartzea erabaki zuen.



➤ 2021eko azaroaren 25eko Ohiko Osoko Bilkurak onartu zuen erabakiaren 4.3 atalean, *“Ingurumen eta Landa eremuko teknikariaren azterketa tekniko, eman beharrezko pausuak GGLAn integrazioa osatzeko”* txostenean integrazio prozesuan eman beharreko pausoak zehaztu ziren. Horrela, atal honen D) azpiatalean ondorengo aipatzen da:

“Gipuzkoako lurralde historikoan garraio publikoko zerbitzuan tarifen integrazioko sistemaren hitzarmena onartzea eta sinatzea. Alde batetik Udala eta GGLAren artean eta bestetik zerbitzuaren esleipenduna eta GGLAren artean. Azken honi dagokionez aipatu behar da kontratuaren baldintzetan bete behar hau aurreikusi zela”.

➤ Cuadra SAUk, Tolosako hiri garraio zerbitzuaren adjudikaziodunak, aipatutako hitzarmena onartu du eta Udalaren onarpenaren zain dago GGLAri bidaltzeko. Hitzarmenean alkatearen sinadura eskatzen da, Udalak oniritzia emateko gure ardurapeko operadorearen eta GGLAren artean sinatutako hitzarmenari.

➤ Zerbitzuaren adjudikaziodunaren eta GGLAren artean sinatu beharreko hitzarmenak ez du operadorearentzat zerbitzuaren plegu teknikoak eskatzen ez duen betebeharririk ezartzen, kontratu honen plegu teknikoetan integrazio prozesuko betebeharrak eta baldintzak zehaztuta baitaude.

➤ Zerbitzuaren esleipendunaren eta GGLAren artean sinatu beharreko hitzarmenak ez du Udalarentzat Udalaren eta GGLAren artean sinatutako hitzarmenean onartu ez den betebeharririk ezartzen. Beraz, ez du ondorio ekonomikorik eta ez du aldaketarik indarrean dagoen kontratuan.

➤ Zerbitzuaren operadorearen eta GGLAren artean sinatu beharreko hitzarmenak helburu du GGLAren eta operadorearen artean egingo diren datuen eta diru-sarreraren transferentziak arautzea.

➤ Zerbitzuaren adjudikaziodunaren eta GGLAren artean sinatu beharreko hitzarmena Udalaren eta GGLAren artean sinatutako hitzarmenaren menpekoa da; zentzu horretan, 12. klausulan honako hau xedatzen da:

«Hitzarmen honen aldaketek ezin ezingo dute Tolosako Udalak eta Garraioaren Lurralde Agintaritzak sinatutako "GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO GARRAIO PUBLIKO KOLEKTIBOAN TARIFEN INTEGRAZIOKO SISTEMA EZARTZEKO LANKIDETZA HITZARMENA"ren aurka egin, ez eta bertan ezarritakoaren aurka egin ere».

3- ORGANO ESKUDUNA

2021/02/09an Tokiko Gobernu Batzarrak Cuadra SAUri adjudikatu zion Tolosako hiri-garraio kolektiboaren zerbitzu publikoa kudeatzeko zerbitzu-kontratua. Kontratu horren



organo eskuduna Tokiko Gobernu Batzarra da, eta, beraz, berari dagokio zerbitzuaren adjudikaziodunaren eta GGLAren arteko hitzarmenari onarpena ematea.

Aurreko guztia aintzat hartuta, eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA- Onartzea hitzarmen hau: **HITZARMENA, TOLOSAKO UDALAREN, GIPUZKOAKO GARRAIOAREN LURRALDE-AGINTARITZAREN ETA AUTOBUSES CUADRA SAU-REN ARTEKOA, TARIFEN INTEGRAZIOKO SISTEMA EZARTZEKO TOLOSAKO BIDAIARIEN HIRI-GARRAIO PUBLIKOAREN ZERBITZUAN.** Klausula hauen arabera onartzen da:

“LEHENENGOA.- Hitzarmenaren xedea

AUTOBUSES CUADRA SAUK konpromisoa hartzen du Tolosako Udalak eta Garraioaren Lurralde Agintaritzak gaurko egunez sinatutako "GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO GARRAIO PUBLIKO KOLEKTIBOAN TARIFEN INTEGRAZIOKO SISTEMA EZARTZEKO LANKIDETZA-HITZARMEN"ean adostutako tarifen integrazioko sistema arautzen duten terminoak eta baldintzak betetzeko, eta, beraz, administrazio publiko horiek tarifen integrazioko sistemari buruz hartzen dituzten akordioak eta erabakiak lotesleak izango dira **AUTOBUSES CUADRA SAU** operadorearentzat.

Hori horrela izanik, **AUTOBUSES CUADRA SAUK** tarifen integrazioko sistema arrakastaz gauzatzeko behar diren ahaleginak egin beharko ditu, eta horretarako beharrezkoak diren barneko eta kanpoko jarduketak egingo ditu.

Kontuan izanik (i) II. azalpenean aipatutako hitzarmena esparru orokorra dela, tarifen integrazioko sistemaren oinarrizko zehaztapenak finkatzen dituen aldetik, eta (ii) tarifen integrazioko sistemaren beraren zehaztapen zehatza eta garapena Garraioaren Lurralde Agintaritzaren Batzar Orokorrak ezartzen dituela, aipatutako Batzar Orokorrak gai horietan har ditzakeen akordioak onartu eta betetzeko konpromisoa eta obligazioa hartzen ditu **AUTOBUSES CUADRA SAUK**.

BIGARRENA.- Txartel bakarra onartzea eta zerbitzua ematea

AUTOBUSES CUADRA SAUK onartzen du txartel bakarra Tolosan ematen duen hiri-garraio publikoaren zerbitzuan, zerbitzuaren ordainbide bezala.

Beraz, **AUTOBUSES CUADRA SAUK** garraio-zerbitzua ematen dio txartel bakarra duen erabiltzaile orori, baldin eta bere ibilgailuetan txartela behar bezala balioztatzen badu.



Operadorean txartel bakarra erabiltzeak ez du inolako aldaketarik ekarriko bidaiarien hiri-garraio publikoaren zerbitzuaren prestazioaren titulartasunean; nolana ere, **AUTOBUSES CUADRA SAUK** ematen duela ulertzen da, eta, ondorioz, garraio-kontratua operadorearen eta erabiltzailearen artean formalizatzen da. Kontratu horretatik eratorritako harremana arautuko du aplikagarria den araudiak, hurrengo estipulazioan xedatutakoari kalterik egin gabe. Txartel bakarra, operadorearen ibilgailuetan behar bezala balioztatuta, garraio-titulu gisa eratzen da operadorearen ibilgailuetan.

AUTOBUSES CUADRA SAUK jasotzen ditu Garraioaren Lurralde Agintaritzak Tolosako bidaiarien hiri-garraio publikoaren zerbitzua erabiltzeagatik lortzen dituen diru-sarrerak, Garraioaren Lurralde Agintaritzaren Batzar Nagusiak tarifen integrazioko sistemaren esparruan zehazten dituen arauen arabera.

HIRUGARRENA.- Txartel bakarra erabiltzeko baldintza orokorrak

Erabiltzaileek txartel bakarra erabiltzeko terminoak eta baldintzak, Tolosako bidaiarien hiri-garraio publikoan ordainbide baliadun gisa, Garraioaren Lurralde Agintaritzaren Batzar Orokorrak onartzen dituen baldintza orokorren arabera arautzen dira. Baldintza horiek komunak dira tarifen integrazioko sistema ezartzea erabakitzen duten administrazio publiko guztientzat (eta haien operadoreentzat).

Ondorioz, erabiltzailearen eta Garraioaren Lurralde Agintaritzaren arteko harremana, txartel bakarra ordainbide gisa erabiltzeari dagokionez, baldintza orokor horien arabera araututa dago; eta zerbitzua ematen duen **AUTOBUSES CUADRA SAU** operadorearen eta erabiltzailearen arteko harremanek, garraio-zerbitzu publikoaren prestaziotik beretik eratorriek, (hau da, txartel bakarretik, garraio-titulu den aldetik zerbitzuetan erabiltzen denean), Tolosako bidaiarien hiri-garraio publikoari aplikatu beharreko araudiaren arabera jarraituko dute.

LAUGARRENA.-Diru-sarrerak likidatzeko eta konpentsatzeko sistema

AUTOBUSES CUADRA SAUK konpromisoa hartzen du Garraioaren Lurralde Agintaritzaren Batzar Orokorrak har dezakeen diru-sarrerak likidatzeko eta konpentsatzeko sistema onartu eta betetzeko, berari legokiokoen puntu guztietan.

Ondorio horietarako, operadoreak eta Garraioaren Lurralde Agintaritzak honako hau hitzartzen dute:

- Garraioaren Lurralde Agintaritzak tarifen integrazioko sistema zehazten du, bereziki, zonakatze komuna, tarifa-sistema integratua, tarifa integratuak, kolektibo berezi integratuak eta hobaridun garraio-aldaketa politikak, bai eta sistemak lortutako diru-sarrerak **AUTOBUSES CUADRA SAU**ri banatzeko sistema ere, Tolosako Udalarentzat eta bere operadorearentzat tarifen integrazioko sistema ezartzeko oinarri den neutraltasun ekonomikoaren printzipioa errespetatuz.
- Nolanahi ere, Garraioaren Lurralde Agintaritzak konpromisoa hartzen du azkenean erabakitzen duen tarifa-integrazioko sistemaren zehaztapenak aldatzeko, eta tarifak



aldatuko ditu, Tolosako Udalari eta/edo bere operadoreari dagokienez, estipulazio honetan aurreikusitako neutraltasun ekonomikoaren printzipioa betetzen ez den kasuetan.

Ondorio horietarako, jasota geratzen da estipulazio honetan aipatutako neutraltasun ekonomikoaren printzipioak berekin dakarrela Garraioaren Lurralde Agintaritzak hurrengo urterako tarifa-sistema integratua berrikusi eta birdoitzea, baldin eta operadoreak diru-sarrerak murrizten baditu sistema ezarri aurreko urtean lortutako diru-sarrerekin alderatuta, beti ere diru-sarrera txikiagoak tarifen integratioko sistemaren ezarpenari egozteko modukoak badira. Horretarako, Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren tarifen integratioko batzordeak 6 hilean behin aztertuko ditu sistemaren ibilbidea eta emaitzen progresioa eta, hala badagokio, beharrezko neurri zuzentzaileak hartuko ditu.

BOSGARRENA.- Txartel bakarraren kudeaketa

AUTOBUSES CUADRA SAU jakinaren ganean dago txartel bakarraren kudeaketa modu zentralizatuan egiten duela Garraioaren Lurralde Agintaritzak.

Zehazkiago esateko, Agintaritzak, eremu horretan eta batzuk aipatzearen besterik gabe, honako eginkizun hauek egiten ditu:

- Ukipenik gabeko txartel fisiko zein birtualaren hornidura eta salmenta.
- Txartel bakarraren erabiltzaileek saldoen errekaragatik egiteko mekanismoak artikulatzea.
- Ustiapenari buruzko informazioa, Garraioaren Lurralde Agintaritzaren kudeaketako zentroaren koordinaziopean, eta diru-sarreraren, aurrerakinen eta dagokien konpentsazioen aldirako likidazioak egitea.
- Txartel bakarraren erabilerari dagokionez, kontrolak eta auditoretzak egitea.
- Herritarrei arreta eskaintzea, txartel bakarraren inguruan.

SEIGARRENA.- Herritarrei eskaintako arreta

Kontuan hartuz **AUTOBUSES CUADRA SAUK** jarraituko duela Tolosako bidaiarien hiri-garraio publikoko zerbitzua eskaintzen, eutsi egingo dio jendeari arreta emateko duen zerbitzuari, garraio-zerbitzutik bertatik sor daitezkeen kontsulta, gorabehera eta gainerako arazo guztiei erantzun ahal izateko.

Garraioaren Lurralde Agintaritzak jendeari arreta emateko zerbitzua eskaintzen du, txartel bakarraren eta horren erabileraren inguruan sor daitezkeen kontsulta, gorabehera eta gainerako arazo guztiei erantzun ahal izateko. Horrez gain, edozein arrazoi dela medio garraio-zerbitzutik bertatik sor daitezkeen kontsulta, gorabehera edo gainerako arazoren bat iristen bazaio, **AUTOBUSES CUADRA SAUK** jendeari arreta emateko jarritako zerbitzura bideratuko ditu.

Era berean, **AUTOBUSES CUADRA SAUK** jendeari arreta emateko jarritako zerbitzuak Garraioaren Lurralde Agintaritzak jendeari arreta emateko jarritako zerbitzuari bideratuko dizkio kekek eta erreklamazioak, planteatzen zaizkion gaiak bere garraio-zerbitzuarekin zerikusirik ez dutenean.

ZAZPIGARRENA.-Egokitzapen teknologikoa



AUTOBUSES CUADRA SAUK konpromisoa hartzen du Garraioaren Lurralde Agintaritzari edo haren kontratistei bere ekipamenduan, ibilgailuetan eta abarretan egin beharreko egokitzapen teknologikoak egiten uzteko, tarifen integrazioko sistema hobetzeko eta eboluzionatzeko.

ZORTZIGARRENA.- Informatzeko, konfidentzialtasuna gordetzeko eta datu pertsonalak babesteko betebeharra

Alderdiek badakite tarifa-integrazioa behar bezala kudeatzeko beharrezkoa dela informazioa etengabe eta egiazki ematea, besteak beste, operadoreen garraio-jarduerari buruz.

Beraz, alderdiek hitzartzen dute egoki irizten dioten informazio guztia une oro emango diotela elkarri, tarifen integrazioko sistemaren ezarpen osoa eta arrakastatsua lortzeko, alde batetik, eta sistema behar bezala gauzatzeko, beste alde batetik.

Hitzarmena gauzatzeko alderdiek partekatutako informazio eta/edo dokumentazio guztia, eta baita informazio horretatik sortutako beste edozein dokumentazio ere, informazio konfidentzialtzat joko da, eta horrexegatik, estipulazio honetan xedatutakoaren arabera, alderdiek konpromisoa hartzen dute informazio konfidentzial hori ez transmititzeko espresuki baimenduak geratzen direnez kanpoko inolako pertsona edo erakunderi, salbu alderdietakoren bati legez eskatuko balitzaio, edo informazio konfidentzial hori osorik edo zati batean ematera legez behartua badago.

Hitzarmen honetatik eratorritako eskubideak eta betebeharrak gauzatzeko beren parte-hartze pertsonala edo profesionala ezinbestekoa den pertsonari soilik jakinarazi ahal izango zaie informazio konfidentziala, eta hitzarmen honen edukia dela-eta aholkularitza-zerbitzu profesionala ematen dutenei.

Estipulazio honetan informazio konfidentzialaren inguruan emandako xedapenak ezingo dira aplikatu honako kasu hauetan: (i) informazio hori edo informazioaren zati batzuk jendartera iristeko iturria alderdiez bestelakoa izatea; (ii) alderdietakoren batengana modu ez konfidentzian iristea, informazio konfidentzial hori emateko debekurik ez duen iturriaz bestelako iturri baten eskutik; edo (iii) alderdietakoren baten, bere aholkulari profesionalen, edo bere ordezkarien eskuetan egotea Hitzarmen hau sinatu baino lehenago.

Nolanahi ere, aldeek nahitaez bete beharko dituzte Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikotik (aurrerantzean DBLO-EDB) eratorritako betebeharrak, baita horiek garatzeko arauditik eratorritakoak ere, hitzarmena eta/edo hitzarmenaren babesean hartzen diren akordioak indarrean dauden bitartean, bakoitzak bere esparruan gauzatzen dituen datu pertsonalen edozein tratamenduren ondorioz, datuen tratamendu horren arduraduna den heinean.

Era berean, hitzarmenean eta/edo hitzarmenaren babesean hartzen diren erabakietan aurreikusitakoa behar bezala gauzatzeko, beharrezkoa bada alderdiek beren fitxategietan sartutako datu pertsonalak lagatzea edo jakinaraztea, alderdiek nahitaez bete beharko dituzte horri buruz Datu Pertsonalak Babesteko Lege Organikoan jasotako aurreikuspenak, eta, bereziki, 6. eta hurrengoak artikuluetan eraginpekoaren baimenean oinarritutako tratamenduaren arloan.

BEDERATZIGARRENA.- Hitzarmenaren Jarraipen Batzordea



Alderdiek adosten dute Jarraipen Batzorde baten esku uztea Hitzarmena betetzen dela egiaztatzeko jarraipena egiteko lana. Batzorde horren osaera, Partzuergoaren Estatutuen 16. artikuluan horretarako ezarritako baldintzak kontuan hartuta, Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren Batzar Orokorak erabaki zuen, 2019ko ekainaren 14an egindako bilkuran.

Horretarako, hitzarmen honen Jarraipen Batzordea, **AUTOBUSES CUADRA SAUko** bi kidek eta Garraioaren Lurralde Agintaritzako bi kidek osatua (ordezkari bat Eusko Jaurlaritzaren aldetik eta beste ordezkari bat Gipuzkoako Foru Aldundiaren aldetik), honako hauez arduratuko da:

- a) Hitzarmena betetzen dela zaintzea, eta hitzarmenaren interpretazioan, betetzean eta gauzatzean sor daitezkeen zalantzak konpontzea;
- b) tarifen integratioko sistemaren ezarpenaren eboluzioa, garapena eta betearazpena aztertzea, eta aipatu sistema horren ezarpena zuzena eta arrakastatsua izan dadin Hitzarmenean beharrezkoak diren aldaketak proposatzea bere ordezkatupei, HAMABIGARREN estipulazioan aurreikusitakoaren arabera;
- c) alderdien artean Hitzarmenaren inguruan sor daitezkeen gatazkak konpontzeko bideak proposatzea.

Batzorde hau osatzen duten pertsonak erabakitzeke eta gauzak betearazteko behar adina gaitasun izango dute, bakoitzak ordezkatzeko duen erakundearen barruan. Aurrekoa gorabehera, eta Batzorde horrek jorratu beharreko gaien espezifikotasunaren arabera, kasu bakoitzean aztertzen den gaien adituak eta profesional espezializatuak ere sartu ahal izango dira batzordean; aditu horiek hitza izango dute, baina botorik ez.

Jarraipen Batzordea bere kideetako edozeinek gainerakoei egindako deialdiaren bitartez bilduko da, aipatu kide horiek proposatzen dituzten gaiak jorratu eta aztertzeko.

Jarraipen Batzordearen bilera-deialdiaren eta bilera egiten den egunaren artean bost (5) egun natural utzi beharko dira gutxienez.

Jarraipen Batzordearen deialdiak era hauetan egin ahal izango dira: (i) deialdiak eskura emanez, edo (ii) jaso izanaren agiria duen gutun ziurtatua bidaliz alderdiek adierazitako helbidera, edo (iii) alderdi bakoitzak adierazitako helbide elektronikora mezu elektronikoko bat bidali eta jaso izana adierazten duen beste mezu elektronikoko edo harrera-mezu bat eskuratuz.

Jarraipen Batzordea osatzen dutenak edozein unetan ordeztu ahal izango dira, beste alderdiari aldaketa horren berri emanez betiere **AUTOBUSES CUADRA SAUren** edo Garraioaren Lurralde Agintaritzaren ordezkari izendatu berriak parte hartuko lukeen lehen bilera baino lehen.

Jarraipen Batzordea balio osoz eratzeko, beharrezkoa izango da Jarraipen Batzordeko kideen erdia baino gehiago izatea, bertaratuta edo behar bezala ordezkaturik, eta, nolahi ere, **AUTOBUSES CUADRA SAUko** kide bat bertaratuta gutxienez.

Jarraipen Batzordearen erabakiak bileran presente edo ordezkaturik dauden kideen gehiengoz hartu beharko dira beti.



Saio bakoitzaren bukaeran, Jarraipen Batzordeak akta jaso ahal izango du, bere kideetako edozeinek horrela eskatuta.

HAMARGARRENA.- Hitzarmena indarrean sartzea eta horren iraupena

Hitzarmen hau sinatzen den egunean jarriko da indarrean, eta 4 urteko iraupena izango du. Beste lau urtez luzatu ahal izango da, aldeek idatziz adostu ondoren.

Iraupenari buruz adostutakoa gorabehera, edozein alderdik suntsiarazi ahal izango du hitzarmena, baina beste alderdiari idatziz jakinarazi beharko dio, hitzarmena amaitzeko aurreikusitako eguna baino bi hilabete lehenago.

HAMAIKAGARRENA.- Prebalentzia

Alderdiek adosten dute hitzarmenean xedatutakoak eta haren babesean sortutako betebeharrak lehenetsuna izango dutela alderdiek beren artean edo beste administrazio publiko batzuekin sinatutako lankidetzatresnen gainetik, baldin eta hitzarmeneko xedapenen aurka doazen gaiak badituzte.

HAMABIGARRENA.- Aldaketa

Hitzarmenaren aldaketa alderdiek adostuta egingo da, Jarraipen Batzordeak proposatuta. Horretarako, indarraldian formalizatutako aldaketa-gehirria sinatuko da.

Hitzarmen honen aldaketek ezin ezingo dute Tolosako Udalak eta Garraioaren Lurralde Agintaritzak sinatutako "GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO GARRAIO PUBLIKO KOLEKTIBOAN TARIFEN INTEGRAZIOKO SISTEMA EZARTZEKO LANKIDETZA-HITZARMENAREN" aurka egin, ez eta bertan ezarritakoaren aurka egin ere.

HAMAHIRUGARRENA.- Hitzarmena suntsiaraztea

Hitzarmena arrazoi hauetakoren bat dela medio azkenduko da:

-Indarraldia amaitzen bada eta indarraldia luzatzea erabaki ez bada.

-Alderdiek aho batez hala erabakita.

-Sinatzaileetako batek bere gain hartutako betebeharrak eta konpromisoak ez betetzeagatik.

-Deuseztasuna deklaritzen duen erabaki judiziala medio.

-Alderdietako edozeinek hitzarmena salatzeagatik, hitzarmenaren arabera beste alderdi batek bere gain hartutako betebeharrak ez betetzeagatik; bete ez duen alderdiak erantzun egin beharko du hitzarmena ez betetzeagatik beste alderdiari eragindako kalte eta galera guztiengatik.

-Garraioaren Lurralde Agintaritzaren eta Tolosako Udalaren artean sinatutako "GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO GARRAIO PUBLIKO KOLEKTIBOAN TARIFEN INTEGRAZIOKO SISTEMA EZARTZEKO HITZARMENA" izeneko dokumentua desegiteagatik;

- Tolosako Udala eta Garraioaren Lurralde Agintaritza euren borondatez edo halabeharrez banantzeagatik; eta



- Garraioaren Lurralde Agintaritza desegiteagatik.
- AUTOBUSES CUADRA SAUk Tolosako zerbitzua ez emateagatik.

HAMALAU GARRENA. Erregimen juridikoa

Hitzarmenak izaera administratiboa du, eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 57. artikuluan eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 47. artikuluan eta hurrengoetan aurreikusitako araubidea aplikatuko zaio.

Eta agiri honetan ezarritakoarekin bat datozela erakusteko, bertaratutako pertsonak Lankidetzako Hitzarmen hau sinatzen dute, goiburuan adierazitako lekuan eta egunean.

AUTOBUSES CUADRA SAU enpresaren ordezkaria Idoia Cuadra Ibañez de Elejalde	Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzako lehendakaria Rafaela Romero Pozo
Tolosako alkatea Olatz Peon Ormazabal	

BIGARRENA.- Tokiko Gobernu Batzarrak alkateari eskumena ematea aurreko atalean adierazitako hitzarmena sinatzeko.

HIRUGARRENA.- Erabakiaren berri jakinaraztea Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzari eta Cuadra SAU enpresari.

4. TOLOSAKO UDALAK ONARTZEA ETA KUDEATZEA “OPORRAK BAKEAN TOLOSALDEKO FAMILIETAN 2022” PROGRAMA.

Kontuhartzaileak eta idazkariak honako hau adierazi dute:

- Espedientea ez dela izapidetu lankidetzaren hitzarmen bezala.
- Espedientea osatu gabe dagoela, Idazkaritzako eta Kontuhartzailetzako txostenak falta direla.

Hori dela eta, Gobernu Batzar honek, aho batez,

E R A B A K I D U

Gaia mahai gainean uztea.

Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo dute 11:55ean.

ALKATEA

IDAZKARIA



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2022IGBA0006-2022-03-15 Gobernu batzarra akta/2022-03-15 Gobernu